

Euskal Herriko biblioteka 'hibridoa' irudikatu du Joan Mari Torrealdaik

DV. Jaioterria, Bizkaiko Forua, eta aspalditik landu duen gaia, bibliografia, hautatu zituen duela ia bi urte euskaltzain oso izendatutako Joan Mari Torrealdaik sarrera-hitzaldirako. Hura irakurri ondoren, euskaltzain osoa dela adierazten duten diploma eta domina jaso zituen Andres Urrutia euskaltzainburuaren eskutik.

Bibliografiak tarte garrantzitsua izan du besteak beste Jakin aldizkariako zuzendari den Joan Mari Torrealdairen ibilbide luze eta oparoan. Hartara, euskalgintzaren historian ere aspaldikoa den gaiari eskaini zion Bibliografiatik bibliotekara. Esperantzari leihoa hitzaldia. Atzera begira, idatzizko ondarea bildu eta zabaldu beharraren inguruan egindako saioak ekarri zituen gogora, eragile eta proposamen nagusiak aurkeztuz eta, oraingoz, ahalegin horiek gauzatzeke daudela gogoratuz.

Azken urteetan egin dira haatik urrats zehatzak, hala nola 2007an onartutako Liburutegi Legea, Euskadiko Liburutegiaren sorrera aurreikusten zuena, Euskadiko Bibliotekak egitasmoa izaten jarraitzen badu ere. Ez da zalantzarik: legeak Euskadiko Bibliotekari egozten dizkion funtzio guztiak tertzioz betez gero, sekulako aurrerapausoa lekarkioke bibliografiari eta euskal bibliotekari, esan zuen euskaltzain osoak.

Euskal Gutenberg

Euskal bibliografia eta euskal bibliotekaren lehen ahalegin eraginkorren mendeurrenaren atarian gaudela ere ekarri zuen gogora, ehunurrena aspaldiko amets eta asmoak gauzatzeko une egokia izan litekeela azpimarratuz, ehun urteren buruan pilatu diren eskarmentua eta jakinduria baliatuz betiere.

Ametsen artean aipatu zituen euskararen ekoizpen osoa eta euskarari buruz mundu zabalean argitara eman den guztia bilduko zukeen Euskararen bibliografia edota Euskal intelligentsiaren inbentarioa, euskal autoreen fitxategia. Beste amets bat: egungo muga administratiboak eta unean uneko liskar politikoak gainditzeko gai izan daitekeen Euskal Herri osoko biblioteka bat, Euskal Herri osoa bere baitan hartzen duten erakundeetan -Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntza, kasu-oinarrituta.

Balizko eta beharrezko biblioteka hori hibridoa eta hirukoitza irudikatu du Torrealdaik: analogikoa, digitala eta birtuala, fisikoa eta hormarik gabea aldi berean, bertatik bertara zerbitzua emango duena eta urrutikoei ere bai. Euskal Gutenberg, alegia, herrialde asko garatzen ari diren Gutenberg proiektuen euskal bertsio egokitua. Sekula lehentasunik izan ez duten bibliografiaren eta bibliotekaren alorrean galdu diren aukerak gogoratuz amaitu zuen hitzaldia Torrealdaik, eta erantzuna Jose Arana Martijak eman zion.

Euskararen alde Joan Marik egin duen lana amaiera ezinezkoa da, esan zuen Arana Martijak bere hitzaldian. Bibliografia eta Bibliotekak ez dira gauza fisiko edo materialak soilik, gure izaeraren oinarria eta adierazpena ere bai, esan zuen Arana Martijak. Amaitzeko gure artean nahi eta behar zaitugu, Joan Mari!, esan zion akademiakideari. Izan ere, Euskaldunon Egunkariaren inguruko auzian auzipetuta dagoenez, azaroaren 9an epaituko dute Joan Mari Torrealdai.